



ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2026ko maiatzaren 23an **Eskoriatzako Manuel Muñoz Kiroldegian**. Hona hemen arautegia:

➤ PARTAIDETZA:

Infantil, 2012 eta 2013 urteetan jaiotako neska mutilak eta alebin, 2014 urteetan jaiotako neska mutilak.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. JOKATZEKO MODUA

Banakako lehiaketa:

- Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat sokarekin.
- Infantilak: uztaiarekin eta sokarekin ariketa bana.

Kideka modalitateko lehiaketa:

- Alebin Kideka: Esku libreko ariketa bat eta soka-ariketa bat.
- Infantilak Kideka: Soka-ariketa bat eta uztai-ariketa bat

Taldeko lehiaketa:



- Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.
- Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

Banakako modalitatean, lurralde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bosna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Kidekado modalitatean, lurralde bakoitzak gehienez 3 talde aurkeztu ahal izango ditu kategoria bakoitzeko, baita ordezkari bat edo entrenatzaile bat ere kategoria bakoitzeko.

Taldekako modalitatean, lurralde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezko batez osatuak, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da bai alebin zein infantil eta neska zein mutil kategorietan. Taldekako lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabekoak izango dira.

Talde, gimnasta edo ekipo bakoitzak bere musika eraman beharko du (grabazio berri bat) usb formatuan, eta entrenatzaileak eduki beharko du, erreprodukzioaren audioan arazorik ez izateko.

4. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Banakako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoria-ko.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.
- Kidekako lehiaketan:



Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

➤ Taldekako lehiaketan:

Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.

5. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeron nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.